

DIRU-SARRERAK

Gure hotela, lehen beste hotel bat izan zen, baina gero inaktibo zegoen eta Oihanen (ekintzaileetako bat) familiatik jaso dugu herentzian, eta horren ondorioz, ez dugu diru asko behar, eraikuntza dohainik eman baitigute. Lehenaldian hotela izan zenez, hotel batek behar dituen gauza asko ditu, eta beraz, orain diru asko ez dugunez, ez dugu obrarik egingo eta bakarrik geletako koltxoiak aldatuko ditugu eta paretak margotu. Gelak sinple dekoratuko ditugu, bakoitza bere estilora.

Aldaketa txiki horiek egiteko behar dugun dirua, bakoitzak gure poltsikotik 5000 euro jarri ditugu, eta hiru ekintzaile garenez, 15000 euro ditugu aldaketak egiteko. Baina pentsatu dugu, hasieran hotela aurrera eramateko eta pixkat berritzeko, egokiena izango dela bankuari kreditu bat eskatzea, hortaz, 10000 euro eskatuko dizkiogu, eta dirua irabazten hasten garenean, bankuari pixkanaka eskatutako dirua itzuliko diogu.

Gure bezeroak erdi-mailakoak izatea espero dugunez, gure hotela hiru izarrekoa baita, ez dugu espero dirua segituan irabaztea, eta hasieran diru asko ez gastatzen saiatuko gara. Baina denbora aurrera doan heinean espero dugu diru kantitate handi bat lortzea, lankideei eta ekintzaileei (gu geu) soldata bat ordaindu ahal izateko eta hotela hobetzen joateko.

Azkenik, publizitatean (aldizkarietan, iragarkietan, irratan...) %10 gastatuko dugu. Zati honi garrantzia eman nahi diogu, hasieran batez ere, hau izango baita bezeroak gure hotela ezagutzeko bidea. Eta beste %25a gure soldata ordaintzeko eta edozein ezbehar gertatzen bada ordaindu ahal izateko erabiliko da.

Zer gela edo zerbitzu aukeratzen duten arabera gehiago edo gutxiago ordainduko dute bezeroek.